

## M. U.-ko 3 ikaslek, olio jasotzeko edukiontzien proiektuan parte-hartu dute

2007/05/09

**Arrasateko Udala** eta **Mondragon Unibertsitatearen** arteko elkarlanaren emaitza da proiektua. **Goi Eskola Politeknikoko** sei ikasleek garatu dute proiektua. Honakoak dira ikasleak: *Jon Alvarez, Iker Jáuregui, Josu Perez, Sara Aldai, Amaia Duque eta Eñaut Ruiz de Eginu.*

Inaugurazio-ekitaldian parte-hartu zuten Udaleko arduradunek, M.U.ko proiektuaren arduradunek, Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuorde Ibon Galarragak eta Diputazioko Garapen Iraunkorreko Diputatu Luis Mari Oiarbidek.

Hasiera batean edukiontzi hauek honako hiru tokitan jarri dira: Maiatzaren 1 plazan, Ignacio Zuloagan eta Hiper Eroskin. Gerora herriko beste gune batzuetan jarriko dira. Olio biltzeko 9.000 pote ere banatuta daude herriko etxe guztietan, beraz, orain edukiontziak erabiltzea dagokigu.

Olio ontziaren erabilerarako instrukzioak.

